Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

# Mugikortasuneko Kontseilu Sektoriala – Bostgarren bilera

## Consejo Sectorial de Movilidad – Sesión Primera

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2019ko urriak 15**/ 15 de octubre de 2019<br>**Ijentea 1eko prentsa aretoa** / Sala de Prensa, Ijentea, 1.<br>**18:00etan** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **19:50etan /** A las 19:50 horas |

**GAI ZERRRENDA:**

ORDEN DEL DÍA:

| | | |
|---|---|---|
| Kontseilua osatzen duten pertsona fisikoak ezagutaraztea | 1 | Notificación del nombramiento de las personas físicas integrantes del Consejo. |
| Aurreko akta onartzea. | 2 | Aprobación de acta anterior. |
| Presidenteordea eta batzorde iraunkorreko kideak izendatzea | 3 | Nombramiento del vicepresidente y de los miembros de la comisión permanente. |
| Urteko programa eta egutegia eztabaidatzea | 4 | Programa y calendario anual de actividades. Debate. |
| Taxi Ordenantza Berria | 5 | Futura ordenanza del taxi. |
| Mugikortasunarekin zerikusia duten 2019ko partaidetzazko aurrekontuen berri ematea. | 6 | Dar cuenta de los presupuestos participativos 2019 relacionados con Movilidad. |
| Bizikleta publikoko sistema berriari buruz informatzea | 7 | Informar del nuevo sistema de bicicleta pública |
| Galde Eskeak | 8 | Ruegos y preguntas |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Mugikortasun eta Garraioko zinegotzi ordezkaria**<br>Concejala Delegada de Movilidad y Transporte |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | 1. **Bildu**<br>2. **PSE-EE**<br>3. **PP**<br>4. **Elkarrekin Donostia** |
| **KONTSEILUKO BOKALAK**<br>VOCALES DEL CONSEJO | 1. **Aieteko Auzotarren elkartea, Lantxabe**<br>2. **KALAPIE Hiriko Txirrindularien Elkartea**<br>3. **Real Automóvil Club Vasco Navarro**<br>4. **Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritza**<br>5. **Colegio Oficial de Arquitectos**<br>6. **Dbus**<br>7. **Donostialdea, Sociedad de Servicios, SL**<br>8. **Fundación Cristina Enea**<br>9. **Sshops Donostia-San Sebastián**<br>10. **Ciudadano**<br>11. **Ciudadano** |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | **Inor ez.**<br>**Nadie.** |

| | | |
|---|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Mugikortasun Ataleko zuzendaria /** Directora del Área de Movilidad | Jone Argoitia |
| | **Kontseiluaren Idazkaritza. Mugikortasuneko Administrazio Ataleko burua /** Secretaría del Consejo. Jefa de Sección Administrativa de Movilidad | Josefa Estrella |

| | |
|---|---|
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **15 MKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Mugikortasuneko zinegotzia, Kontseiluko idazkaria, udaleko teknikari 1.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 5<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 10<br><br>15 vocales integrantes del CSM, además de la Concejala Delegada de Movilidad y la Secretaria del Consejo, 1 persona del cuerpo técnico municipal. |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Mugikortasunerako Zuzendaritza –** Dirección de Movilidad: Urdaneta 13, 3º / 943 481380 / mugikortasuna@donostia.eus |

**SAIOAREN BILAKAERA:**

DESARROLLO DE LA SESIÓN:

Kontseiluko idazkariak adierazi du quoruma dagoela, baina bertaratu ez direnek ez dutela adierazi etorri ezin zirenik.

La secretaria del consejo indica que hay quorum si bien ninguno de los no asistentes ha excusado su ausencia.

### 1. Kontseilua osatzen duten pertsona fisikoen izendapena jakinaraztea.

Bertaratutakoei jakinarazi zaie, partaidetzako sailak egindako zozketaren ondoren, Kontseilu Sektorialeko kidetzat izendatu direla Leopoldo Sánchez Tabernero jauna eta Jose Antonio Abel Salvador jauna.

### 1. Notificación del nombramiento de las personas físicas integrantes del Consejo.

Se comunica a los asistentes que tras el sorteo realizado por el Departamento de Participación han resultado nombrados como miembros del Consejo Sectorial de Movilidad D. Leopoldo Sánchez Tabernero D. Jose Antonio Abel Salvador.

### 2. Aurreko bilkurako akta onartzea.

Aurreko bilkurako akta onartu da. Baltasar de la Hera jaunak uste du akta luzeegia dela. Kontseilu Sektorialeko beste kide batzuentzat egokia da.

### 2. Aprobación del acta anterior.

Se aprueba el acta de la reunión anterior. Por parte de D. Baltasar de la Hera se considera que el acta es demasiado larga. Por parte de otros miembros del Consejo Sectorial se considera adecuada.

### 3. Presidenteordea eta batzorde iraunkorreko kideak onartzea.

Kontseilu Sektorialeko presidenteorde izendatu da Pedro Martínez de Artola González, Real Automóvil Club Vasco Navarro elkartearen ordezkaria, eta batzorde iraunkorreko kide izendatu dira Higinio Otazu, Kalapie elkartearen ordezkaria, eta Iñigo García, Sshops Donostia plataformaren ordezkaria.

Hurrengo bilkura batean beste herri erakunde bat (Elkartu) sartzea proposatu da, bai eta Donostialdea Sociedad de Servicios SL sozietatea ere, batzordekideen % 50 herri erakundeetakoak izan daitezen, araudiari jarraikiz.

### 3. Nombramiento del vicepresidente y de los miembros de la comisión permanente.

Se nombra vicepresidente de Consejo Sectorial a D. Pedro Martínez de Artola González, representante del Real Automóvil Club Vasco Navarro, y miembros de la comisión permanente a D. Higinio Otazu, representante de kalapie y a D. Iñigo García, representante de Sshops Donostia San Sebastián.

Se plantea la posibilidad de que en una próxima sesión, se incorpore alguna Entidad Ciudadana más (Elkartu), y de que pueda incorporarse también, Donostialdea Sociedad de Servicios SL, para respetar, así, el porcentaje del 50% de vocales pertenecientes a Entidades Ciudadanas establecido por el reglamento.

### 4. Urteko programa eta egutegia eztabaidatzea

Presidenteak adierazi du gai asko planteatu direla, eta proposatu du elkarte bakoitzak 3 gai hauta ditzala, batzorde iraunkorraren programa eta jardueren urteko egutegia errazago aztertzeko, baita Ingurumeneko zuzendariak aurkeztuko duen larrialdi klimatikoko adierazpena ere.

### 4. Programa y calendario anual de actividades. Debate.

La presidenta indica que se han planteado numerosos temas y propone que por parte de cada asociación se elijan 3 temas a tratar, para así facilitar el estudio del programa y calendario anual de actividades a la Comisión Permanente, también en cuanto a la declaración de emergencia climática que presentará el Director de Medio Ambiente.

Presidenteak Ingurumeneko zuzendariari eman

La Presidenta da paso al Director de Medio

dio hitza. Hark adierazi du Donostiako Udalaren osoko bilkurak Larrialdi Klimatikoa aldarrikatu duela, talde politiko guztien adostasunez.

Esan du $CO_2$ emisioen % 60 mugikortasunaren sektoretik edo garraiotik datorrela, eta sektore hori dela emaitzak azkarren lor ditzakeena, teknologia dagoeneko badagoelako. Esan duenez, adibidez, industrian eta hirugarren sektorean, agian 20 urte falta dira helburuak lortzeko.

Halaber, adierazi duenez, zientzialarien panelean, hartu behar diren neurriak azkartzearen aldeko mugimendu bat dago eta, horregatik, klima aldaketaren goi bilera berria egin arte, ahal diren neurriak hartu nahi dira $CO_2$ emisioak murrizteko; horretarako, Mugikortasunaren Kontseilu Sektorialeko kideek parte hartzea nahi dute.

PSE-EEko ordezkariak argitu du aldarrikapena dagoeneko egin dela eta asmoa dela ahalik eta gizarte eremurik handienera iristea, aldarrikapena aberastu ditzaketen alderdiak eta elementuak gehitzeko, ondo geratuko den testu soila izan ez dadin.

Har daitezkeen neurriei buruzko eztabaida hasi da eta Kontseiluko presidenteak adierazi du Mugikortasuneko Kontseilu Sektorialaren helburuekin bat datorren gaia izan arren, eta nahiz eta oso egokia izan Kontseiluan gaia lantzea, eztabaida eta neurri berrien zehaztapena egiteko beste Kontseilu baten gai zerrendan sartu behar dela lehenik, batzorde iraunkorrak aztertu beharreko beste gaiekin batera.

Cristina Enea fundazioko ordezkariak eta Arkitektoen Elkargoaren ordezkariak adierazi dute gaiak antolatu egin behar direla, askotariko alderdiak eta garrantzia dituztelako eta alderdi orokor batzuek beste alderdi zehatzago batzuetan eragina dutelako.

Kontseiluaren presidenteak adierazi du gai

Ambiente. Éste explica que el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián ha declarado la Emergencia Climática con consenso de todos los grupos políticos.

Que el 60% de las emisiones de $CO_2$ provienen del sector de la movilidad, o del transporte y que es uno de los sectores en los que se pueden conseguir resultados en un tiempo menor porque la tecnología ya existe. Que por ejemplo en la industria o el sector terciario es posible que hicieran falta 20 años para conseguir objetivos.

Que en el panel de científicos hay un movimiento a favor de acelerar las medidas que hay que tomar, y es por ello que entre tanto llega la nueva cumbre sobre el cambio climático se pretenden recopilar medidas posibles a adoptar para reducir las emisiones de $CO_2$, para lo cuál quiere hacerse partícipe a los integrantes del Consejo Sectorial de Movilidad.

El representante del PSE-EE aclara que la declaración ya se ha producido y que la pretensión es dar traslado al mayor ámbito social posible para incluir los aspectos elementos etc... que puedan enriquecer la declaración, para que no sea un texto que quede bien.

Comienza el debate sobre algunas medidas posibles y la Presidenta del Consejo indica que es un tema que concuerda con los objetivos del Consejo Sectorial de Movilidad, y que considera muy pertinente que se trate en el Consejo pero que el debate y concreción de posibles medidas, habrá de hacerse incluyéndose como tema dentro del orden del día de otro Consejo junto con los temas ya propuestos pendientes de analizar por la Comisión permanente.

Por parte del representante de Cristina Enea y de la representante del Colegio de Arquitectos se señala que los temas habría que ordenarlos porque tienen dimensiones y calado muy diferentes y porque hay aspectos generales que influyen en otros particulares.

La presidenta del Consejo indica que hay temas

batzuk, esaterako, Mugikortasun Jasangarriaren Plana edo Plan Orokorra, Udalak gauzatuko dituela eta, nahitaez, herritarrek, Kontseiluko kideek eta beste pertsona askok hartuko dutela parte haietan; alabaina, adierazi du oso gai zabalak direla eta 3 edo 4 hilean behin egiten diren Mugikortasun Kontseiluetan ezin dela hausnarketa sakona egin, jende askok parte hartzen duelako. Horregatik, errealistak izateko, uste du ezin direla horrelako gai zabal edo filosofikoak landu, ordubetean landu daitezkeen gaiak baizik, izen-abizenak dituzten gai zehatzak.

como el Plan de Movilidad Sostenible, o el Plan General que son proyectos que va a realizar el Ayuntamiento y que necesariamente van a tener participación ciudadana, de los miembros del Consejo y de muchas otras personas pero que son temas tan amplios que en los Consejos de Movilidad que se convocan cada 3 o 4 meses, con mucha gente diversa no puede realizarse una reflexión en profundidad, por lo que siendo realistas considera que no se pueden tratar temas tan extensos o en general de filosofía, sino temas que puedan debatirse en una hora, temas con nombre y apellidos, que estén bien definidos.

Leopoldo Sánchez jaunak adierazi du bere gaiak ez direla bidali eta erantzun dio gai zerrenda bidali ondoren egin zuela ekarpena, eta eguneratuko dela idatzia. Cristina Enea fundazioko ordezkariak adierazi du gaien proposamena hobetzeko baliatuko duela egoera.

D. Leopoldo Sánchez indica que sus temas no han sido enviados y se le contesta que su aportación de temas fue posterior al envío de la relación de temas, que actualizaremos el escrito. El representante de Kristina Enea señala que él aprovechará para mejorar su propuesta de temas.

## 5. Taxi Ordenantza Berria

Kontseiluaren idazkariak azaldu du taxiaren barruan prozedura asko daudela, eta guztiak batzeko, identifikazio txartela emango zaiela, zeinetan balio data jasoko den. Data hori, hasiera batean, bisaren data izango da, baina soldatapeko batek hurbilagoko data bat balu, hori izango litzatekeela data.

*Mortis causa* eskualdatzeen kasuan, adierazi dute adingabeei eskualdatzea arautu dela, eta baimena eman dela adin nagusiko bihurtu ondoren 6 urtez mantentzeko, taxia lanbide izan nahi duen ala ez erabakitzen duen bitartean.

Soldatapekoei dagokienez, adierazi dute soldatapekoa jartzera behartu zaiela taxilariei, titularrari ezintasun iraunkorra eman dioten kasuetan, sei hilabetetik aurrerako ezintasun iragankorreko bajetan eta familiakoak zaintzeko kasuetan.

Bestalde, jakinarazi dute taxiaren egoera aldatu egin dela, orain dagoen eskaria baino lizentzia eskaintza gehiago baitaude. Eta taxilari batzuek

## 5. Futura Ordenanza Taxi

La Secretaria del Consejo explica que dentro del taxi hay muchos procedimientos, y que para aunar todos ellos, se va a dar una tarjeta identificativa donde se va a poner una fecha de validez que en principio será la fecha de visado pero si hubiera un asalariado autorizado con una fecha más próxima, sería esa fecha.

En el caso de la transmisión mortis causa, se indica que se ha regulado la transmisión al menor de edad y se permite que la mantenga hasta 6 años después de la mayoría de edad, mientras decide si necesita dedicarse al taxi o no.

En cuanto a asalariados, se señala que se ha obligado a los taxistas a poner asalariado en los casos de invalidez permanente de titular, también en bajas transitorias a partir de los 6 meses y también en el caso de cuidado de familiares.

Por otra parte, se comunica que la situación en el taxi ha cambiado en el sentido de que ahora hay más oferta de licencias que demanda. Y que se

erretiroa hartzen dutela, lizentzia eskualdatu gabe.

Jakinarazi da Bilboko ordenantzan, egoera konpontzeko, kargu uzteko egoeran daudela deklaratu eta 4 urteko epea ematen zaiela lizentzia eskualdatzeko.

Adierazi da Donostiako Ordenantzaren zirriborroan araudi hori sartu dela eta, gainera, 4 urteak igaro ondoren, Udalak prozesu publikoa zabaldu dezakeela lizentziak eskualdatzeko, administrazio kontratazioko printzipioei jarraikiz.

Azaldu da zerrendak arautu direla, eta ezarri da Udalak soilik eskain ditzakeela lizentziak, zeinak bosnaka eskainiko dituen eta kargu uzteko egoeran daudenak lehenetsiko dituen.

Gidabaimenari dagokionez, 4 urteko iraungipena ezarri da eta ikastaroak egitera behartu daiteke taxilaria.

Ibilgailu egokituei dagokienez, arautu da ibilgailu egokitu batetik egokitu gabeko batera alda daitezkeela, baldin eta Mugikortasuneko zinegotziaren ebazpen bidez ezarritako atalaseak errespetatzen badira.

Egutegiari dagokionez, adierazi dute egutegian esan ohi dela noiz hartu behar duten atseden eta noiz egin dezaketen lan taxilariek, baina ez daudela ezarrita gutxieneko langileak jasota dituzten ordu tarteak, ez eta geltokian egon behar diren taxien gutxieneko kopurua ere.

Presidenteak adierazi du herritarrek taxiak gelditu ezin dituztenez, geltokian taxiak egotea bermatu behar dela. Jakin nahi da ea kexak egiazkoak diren edota eskari tontorrak diren eta ez duten justifikatzen taxi kopurua handitzea.

Taxiaren aplikazioari buruz hitz egiten jarraitu da: teknologia aurreratu denez, aplikazio bat sortu nahi da taxiak eskatzeko, hurbilen dagoena topatzeko eta gutxi gorabehera zenbat izango den eta noiz helduko den jakiteko.

está dando la situación de que hay taxistas que se jubilan si haber transmitido la licencia.

Se indica que la ordenanza de Bilbo resuelve la situación declarándoles en situación de cese e indicando que tendrán 4 años para transmitir la licencia.

Se señala que en el Borrador de Ordenanza de Donostia, se ha incluido esa regulación y además que transcurridos 4 años, el Ayuntamiento podrá abrir un proceso público de transmisión de licencias, en el que se sigan los principios de contratación administrativa.

Se indica que se regulan las listas, se establece que solo el Ayto pueda ofrecer las licencias y que se ofrecerán de 5 en 5 y que se dará prioridad a las declaradas en cese.

En cuanto al carnet de conducir se establece la caducidad en 4 años y que se puede obligar al taxista a hacer cursos.

En cuanto a vehículo adaptado, se regula que puedan cambiar de vehículo a adaptado a no adaptado siempre que se respeten los umbrales establecidos por resolución de la Concejala de Movilidad.

En cuanto a calendario, se señala que tradicionalmente en el calendario se dice cuándo tienen que descansar y cuándo pueden trabajar pero no hay franjas horarias con número mínimos de trabajadores y tampoco se establece un número mínimo de taxis que tiene que haber en parada.

La Presidenta indica que si los ciudadanos no pueden parar a un taxi, sí que ha de asegurarse la disponibilidad de taxis en parada. Se pretende saber si las quejas son reales o si responden a picos de demanda que no justifican el incremento del número de taxis.

Sigue explicando, que en cuanto a la aplicación del taxi, dado que la tecnología ha avanzado, se persigue que puedas pedir taxi a través de una

Leopoldo Sánchezek adierazi du puntu gehienak Udalaren eta taxilarien arteko harremanei buruz direla, zerbitzuaren erabiltzaileei buruz beharrean. Ia mundu osoan eta Espainian taxi bat hartzeko nahikoa dela eskua jasotzea, eta ondo iruditzen zaiola bueltaka ez ibiltzea.

Presidenteak esan du telefonoz deitzeko aukera dagoela, eta Leopoldok erantzun dio atzerritarrek ez dutela zertan ezagutu taxiaren telefono zenbakia.

Presidenteak adierazi du badela arrazoi bat taxiak gelditzea debekatzeko; izan ere, taxien greban ikusi zenez, emisioen ratio altuak daude taxiak hutsik doazela, eta hori saihestu nahi da. Adierazi du geltoki guztietan taxiak egon daitezen lortzeko egingo dela lan, hala ere.

Arkitektoen Elkargoaren ordezkariak adierazi du ezin dela alderatu Donostia Madril edo Bartzelonarekin. Bestalde, taxia hartzera toki batera joateko ohitura dagoenez, mantendu behar dela uste du.

Leopoldo Sánchezek adierazi du emisioak murriztearen ikuspegitik positiboa izan daitekeela berdean doan taxi bat gelditzea.

Arkitektoen Elkargoaren ordezkariak esan du aplikazioek zeregin garrantzitsua dutela ildo horretan, taxiak hutsik joatea saihesteko.

Presidenteak adierazi du taxien ordenantzak alegazioetarako berezko kanala izango duela, guztiek ekarpenak egin ditzaten.

Cristina Enea fundazioko ordezkariak galdetu du ea taxien eskariari buruzko ikerketa egin den, eta ea behar beste lizentzia dauden, dagoen eskariarekiko.

aplicación que localice el más próximo, y te diga aproximadamente cuánto te va a cobrar y cuánto tiempo va a tardar.

Leopoldo Sánchez manifiesta que la mayor parte de los puntos se refieren a las relaciones entre Ayto-taxista y no al ciudadano usuario del servicio. Que en la mayor parte del mundo y de España se coge un taxi levantando la mano y que le parece bien que no esté dando vueltas.

La Presidenta le señala que se puede llamar por teléfono y Leopoldo replica que los extranjeros no tienen por qué conocer los teléfonos del taxi.

Con respecto al motivo de que no se admita que se paren taxis la presidenta hace mención a las emisiones indicando que en la huelga de taxis se calcularon las ratios (altas) de emisiones andando en vacío que es justamente lo que se quiere evitar. Indica que, no obstante, se va a trabajar para que en todas las paradas haya taxis.

La representante del Colegio de Arquitectos, indica que no puede compararse Donostia con Madrid o Barcelona. Por otra parte, considera que si ya existe la costumbre de ir a un sitio para coger el taxi, debe conservarse.

Leopoldo Sánchez indica que si desde el punto de vista de reducción de emisiones puede ser positivo que se pare a un taxi que vaya en verde.

La representante del Colegio de Arquitectos señala que en esta parte las aplicaciones van a jugar un papel importante para evitar desplazamiento en vacío.

La presidente indica que La ordenanza taxi, va a tener su canal propio de alegaciones, para que todos hagáis aportaciones.

El representante de Cristina Enea pregunta si se ha hecho un estudio de demanda de taxi y si son suficientes las licencias con respecto a la demanda existente.

Señala que, llegó de Madrid a las 23:30 y que no

Adierazi du 23:30ean heldu zela Madrildik eta ez zegoela taxirik. Uste duela egoera hori hirugarren mundukoa dela eta anbulatorioetako eta beste interesgune batzuetako ordutegiak lehenetsi behar direla, zerbitzu publikoa delako.
PPko ordezkariak esan du ados dagoela presidentearekin, ez baitu zentzurik taxiak bueltaka ibiltzea, batez ere, teknologia berriak egonik. Baina bere ustez ez du ezer txarrik hutsik doan taxi bat gelditzeak.

Presidenteak adierazi du bezeroak segundo bat lehenago telefonogunera deitu badu eta, ondoren, kaleko taxi bat hartzen badu, ez dugula ezer aurreztu.

Donostialdea Sociedad de Servicios SL sozietateko ordezkariak esan du erraza dirudien arren, ez dela hala.

ATTGko ordezkariak adierazi du gero eta gutxiago altxatzen dela eskua, eta zerbitzu horiek banatzeko ez dela beharrezkoa geltokietan egotea, errazagoa dela teknologia berrien bitartez egitea.

EH Bilduko ordezkariak esan du teknologia hori martxan egon beharko litzatekeela dagoeneko. Adierazi du ez duela ulertu nola egiten den lizentzien eskualdaketa, eta azaldu diote erretiratuen lizentziak kargu uzteko egoeran jarri ondoren, Udalak prozesu publiko bat ireki dezakeela lizentziak eskualdatzeko. Adierazi du herritarrek lizentzia horiek eskuratzeko aukera izateak kezkatzen duela.

Presidenteak erantzun dio behar beste lizentzia egon behar direla zerbitzu ona emateko, eta agerian jarri du taxilarien lana araututa dagoela, tarifa finkoak dituela, eta ez dela gauza bera gertatzen Uber zerbitzuarekin, zeinetan, eskaria handia bada, prezioa altua izan ohi den. Halaber, azaldu du ez duela uste ona denik Uber zerbitzuko langileen lanaren prekarizazioa, horrek eragina baitu zerbitzuaren kalitatean.
Leopoldo Sánchez jaunak adierazi du ez dela ahaztu behar herritarrez, iruditzen baitzaio herritarrak baino gehiago babesten direla

había ningún taxi. Que considera que esa situación es tercermundista y que habría que priorizar horarios en ambulatorios y otros centros de interés, dado que es un servicio público.
El representante del PP dice que está de acuerdo con la Presidenta en el sentido de que no tiene sentido que los taxis estén dando vueltas sobre todo ahora con las nuevas tecnologías. Pero manifiesta que tampoco ve mal que se pare a un taxi que va libre.

La Presidenta dice que si un segundo antes ha llamado a la centralita y luego coge un taxi en la calle, tampoco nos estaríamos ahorrando nada.

Desde Donostialdea Sociedad de Servicios SL se indica que parece fácil pero no es tan fácil.

La representante de la ATTG indica que cada vez se levanta menos la mano y que para la distribución de esos servicios ni siquiera es necesario que estén en paradas que puede hacerse fácilmente con las nuevas tecnologías.

Por parte del representante de EH Bildu se transmite que esa tecnología debiera de estar ya. Se indica que no se ha entendido cómo opera la transmisión de licencias y se le explica que tras la declaración en cese de las licencias de jubilados el Ayto podrá abrir un proceso público para la transmisión de licencias. Señala que lo que le preocupa es que los ciudadanos puedan tener acceso a las licencias.

La presidenta indica que tiene que haber suficientes licencias para asegurar una buena prestación del servicio y pone de manifiesto que el trabajo de los taxistas es un trabajo regulado, en el que se ponen unas tarifas fijas, algo que no se ofrece desde uber, de manera que si la demanda es alta el precio es carísimo. También indica que no considera de utilidad pública la precarización del trabajo de las personas que trabajan para uber, porque eso revierte luego en la calidad del servicio.

D. Leopoldo Sánchez señala que no hay que olvidarse del ciudadano que tiene la impresión de

taxilariak.

Elkarrekin Donostiako ordezkariak adierazi du Mugi txartelarekin ordaintzeko aukera egon beharko litzatekeela, zerbitzu publikoa den aldetik.

ATTGko ordezkariak esan du 2013an Mugirekin ordaintzeko aukera eman zela, baina ez zela eskaririk egon, taxian ordaintzen diren zenbatekoek ez baitute zerikusirik autobusean ordaintzen direnekin.

PSE-EEko ordezkariak galdetu du ea lizentziaren prezioa araututa dagoen, eta erantzun diote hitzartuta dagoela eta 220.000 € ingurukoa dela.

que se protege más al taxista que al ciudadano.

El representante de Elkarrekin Donostia señala que siendo un servicio público debería de poder pagarse con la tarjeta Mugi.

Desde la ATTG se señala que en 2013 se posibilitó el pago con mugi pero que no hubo demanda porque las cantidades que se pagan en taxi nada tienen que ver con las que se pagan en autobús.

El representante del PSE-EE, pregunta si existe un precio regulado de licencia y se le contesta que está conveniado, que es alrededor de 220.000€.

### 6. Mugikortasunarekin zerikusia duten 2019ko partaidetzazko aurrekontuen berri ematea

Mugikortasuneko zuzendariak esan du Udalak aurrekontuaren zati bat partaidetzazko bihurtu zuela; hala, egin beharreko proiektu batzuetan bozketa egin zen, eta hauek hautatu ziren:
--TRAFIKOA ARINTZEKO JARDUKETA, BIRIBILGUNEA ETA SEMAFOROAK EZARRIZ, HERRERA PASEALEKUA 68 EREMUAN. Zuzendariak azaldu du jarduketa hori proiektua onartzeko fasean dagoela eta laster aterako dela lehiaketa.
--KONTXAKO BIDEGORRIA BABESTEA (proiektu estrategikoa)
--ONDARRETA PASEALEKUA HANDITZEA
Aurreko bi proiektuei dagokienez, adierazi du aurrekontu oso neurrikoa zutela hasieran, eta oso deigarriak direnez, alkatea ari dela proiektua gidatzen; gainera, errei bat ezabatzea eta Kontxako baranda ordezkatzea zegoen pentsatuta.

Presidenteak gehitu du jarduketaren xedea errei bat kendu, bidegorria galtzadara jaitsi eta espaloia handitzea dela. Arriskua murrizten dela, maila berean egongo direlako, homologatutako tarte batekin, bizikletariak autoetatik babesteko.

Zuzendariak adierazi du jarduketa 3 fasetan gauzatuko dela eta aurrekontua handitu beharko

### 6. Dar cuenta de los presupuestos participativos 2019 relacionados con Movilidad.

La Directora de Movilidad indica que el Ayuntamiento hizo que una parte de su presupuesto fuera participativa, de manera que algunos de los proyectos a realizar se sometieron a votación, resultando que salieron elegidos los siguientes:
--ACTUACIÓN DE CALMADO DE TRÁFICO MEDIANTE ROTONDA Y SEMAFORIZACIÓN EN LA ZONA DE PASEO DE HERRERA 68. La Directora señala que con respecto a esta actuación estamos en fase de aprobación de proyecto y que se sacará en breve a licitación.
--PROTECCIÓN DEL CARRIL BICI DE LA CONCHA (proyecto estratégico)
--AMPLIAR EL Pº ONDARRETA
Con respecto a los dos proyectos anteriores indica que son dos proyectos que entraron con un presupuesto muy ajustado, que son muy emblemáticos por lo que el proyecto se está dirigiendo por el alcalde que se había pensado además en eliminar un carril de circulación además de sustituir la barandilla de la Concha.

La Presidente añade que la actuación consiste en eliminar un carril, bajar el bidegorri a calzada y ampliar la acera. Que el peligro disminuye porque van a estar al mismo nivel con una separación homologada para proteger al ciclista de los coches.

dela.

--BIZIKLETAK BABESTEKO ATERPEAK
Azaldu du saila ari dela horretan lanean, Kalapie elkartearen eta beste talde batzuen partaidetzarekin. Hiru aterpe mota egin daitezkeela eta Plegua dagoeneko zehaztuta dagoela.
--HAIZEAREN ORRAZIA (proiektu estrategikoa)
Adierazi du Haizearen orrazirako sarbidea oinezkoentzat jarri eta lorategiak ezabatu nahi zituztela, toki garbiagoa lortzeko. Azaldu du ezingo direla lorategiak kendu, babestuta daudelako, eta 300.000 €-ko aurrekontuarekin ez dela iristen oinezkoentzako bidea egiteko, baina proiektua ia idatzita dagoela. Era berean, kontuan hartu behar dira Kostaldeei buruzko Legeak ezartzen dituen mugak.
--ORIXE IKASTOLAREN INGURUAN JOLAS EREMUA SORTZEA
Azaldu da eremu guztia arrasean jarri nahi dela eta garrantzitsuena Bretxaren erabilera berriak antolatzea dela; halaber, Aldamar eta beste kale batzuetako zamalanen tokiak ezabatuko direla, eta dagoeneko horretan ari direla.
--SEMAFORO AKUSTIKOAK
Jakinarazi dute dagoeneko zenbait semaforo akustiko mota probatzen ari direla. Bizilagun batzuek ez dutela txistu hotsa entzun nahi, ONCE erakundeak sistema homologatuak dituela eta zenbait sistema mota probatzen ari garela. Halaber, adierazi da aurrekontu hori hurrengo urterako utziko dela eta mantentze lanen kontratuan sartuko dela.

--BIDEGORRIA OSASUN-ZENTROTIK CUMBRE JAUREGIRAINO LUZATZEKO PROIEKTUA
--BIDEGORRIA ETA DBICI GELTOKIA ALTZAN
--BIDEGORRIA BIDEBIETATIK, GAINERAKO BIDEGORRIAREKIN LOTZEKO

Adierazi dute lehenengo bidegorriaren 1. fasea dagoeneko gauzatu dela eta partaidetzako aurrekontuetan jasota dagoena 2. fasea dela. Lantxabeko ordezkariak adierazi du fase hori gauzatu behar dela. Zuzendariak erantzun dio teknikariak gaia aztertzen ari direla, eta

La Directora indica que la actuación se hará en 3 fases y tendrá que ampliarse el presupuesto.

--ATERPES DE PROTECCIÓN PARA BICICLETAS
Señala que se está trabajando en el departamento, con participación, kalapie y más colectivos. Que hay 3 tipos de aterpes posibles y que el Pliego ya está definido.
--PEINE DE LOS VIENTOS (proyecto estratégico)
Indica que se pretendía peatonalizar el acceso al peine de los vientos y eliminar los Jardines para hacer un espacio más diáfano. Señala que no va a ser posible eliminar los jardines por estar protegidos y que con los 300.000€ presupuestados no llega ni para la peatonalización aunque el proyecto ya está casi redactado. También que hay que tener en consideración las limitaciones que establece la Ley de Costas.
--CREAR UN ESPACIO DE JUEGO ALREDEDOR DE IKASTOLA ORIXE
Se señala que se pretende dejar toda la zona al ras, que ahí el trabajo importante es ordenar los nuevos usos de la Bretxa, que se va a eliminar la carga y descarga de Aldamar y de otras calles y se está trabajando en ello.
--SEMÁFOROS ACÚSTICOS
Se comunica que se están probando distintos tipos de semáforos acústicos. Que hay vecinos que no quieren oir el pitido, que la ONCE tiene sistemas homologados y andamos probando varios tipos de sistemas y que este presupuesto se va a trasladar al año que viene y que se incluirá en el contrato de mantenimiento.

--PROYECTO DE EXTENSIÓN BIDEGORRI DESDE EL CENTRO DE SALUD A LA CUMBRE
--BIDEGORRI Y ESTACION DE DBICI EN ALTZA
--BIDEGORRI DESDE BIDEBIETA PARA ENLAZAR CON EL RESTO DE BIDEGORRI

Se indica sobre el primer bidegorri que la fase 1 ya está hecha y que la prevista en presupuestos participativos es la fase 2. El representante de Lantxabe indica que ya se necesita ejecutar esa fase. La Directora le contesta que lo están mirando los técnicos y la presidenta que el tramo es

presidenteak esan du tartea laburra dela. Halaber, gauzatzeko lehentasunari buruz, adierazi dute Altzan gaur egun ez dagoela bidegorririk, oraindik ere.

pequeño y en cuanto a la afirmación de que es prioritario se señala que en Alza a día de hoy todavía no tienen bidegorri.

Adierazi dute gainerako bidegorrien proiektuak idatzi direla.

Sobre el resto de bidegorris se indica que ya se han redactado los proyectos.

Kalapie elkarteko ordezkariak informazio hori bidaltzeko eskatu du. Zuzendariak jakinarazi die Udalaren webgunean dagoela, partaidetzako aurrekontuetan. Proiektuak onartzen diren heinean zintzilikatuko direla sarean. Epeei buruz galdetu dute, eta zuzendariak adierazi du urte amaierarako proiektu guztiak onartuta egongo direla.

El representante de Kalapie pide que se mande esa información. La Directora les comunica que en la web del Ayuntamiento en presupuestos participativos está. Que en la medida que se aprueben proyectos se irán colgando en la web. Se pregunta sobre plazos y la Directora contesta que de ahí a final de año estarán aprobados los proyectos.

Zer egingo den ikastolaren ingurunearekin galdetzen dute, eta erantzun diote Soraluze kalea bi noranzkoetarako utziko dutela, baina San Bizente eta San Juan itxita egongo direla.

Se pregunta qué se va a hacer en el entorno de la Ikastola Horixe y se indica que se ha decidido dejar la calle Soraluce de ida y vuelta pero luego lo que es San Vicente y San Juan cerrado.

Presidenteak adierazi du zaila dela oreka lortzea eta erabaki behar dela nori eman eta nori ez (bertakoak, zamalanak, aparkalekuak).

La presidente indica que el equilibrio es complicado y hay que decidir a quién se da y a quién no se da (residentes, carga y descarga, aparcamiento).

## 7. Bizikleta Publikoko sistem berriari buruz informatzea.

## 7. Informar del nuevo sistema de bicicleta pública.

Zuzendariak adierazi du Udalaren erabakiz Dbus enpresari esleituko zaiola bizikletak alokatzeko zerbitzua. Sistema berregituratu dela eta, orain arte, bizikleta elektrikoak soilik zeudela eta ez zela gehiagora egin, bandalismoaren erruz.

La Directora indica que el Ayto decidió encomendar a dbus el servicio de alquiler de bicicletas. Que se ha reestructurado el sistema y que hasta ahora solo había bici eléctrica y no se había crecido por culpa del vandalismo.

Geltokiak ugaritu nahi direla eta, nahiz eta ia Donostia osoa laua izan, bizikleta elektrikoa hiriaren goiko aldeetarako utziko dela, eta alderdi lauetan mekanikoak ezarriko direla.

Que se pretenden ampliar las estaciones y si bien Donostia es llana en su mayoría que se va a reservar la bicicleta eléctrica a la parte alta de la ciudad e incorporar mecánicas para la parte llana.

Azaldu du 2 fasetan planteatu dela: lehenengoak 3 urte iraungo du, eta 12 geltoki elektriko eta 22 mekaniko ezarriko dira.

Señala que se ha planteado en 2 fases una primera que duraría 3 años en la que mantendríamos las 12 estaciones eléctricas y se incorporarían 22 mecánicas.

Halaber, 4. urtetik 8. urtera, 12 geltoki elektriko

eta beste 2 mekaniko ezarriko dira.

Adierazi dute hori gaur egungo sistemarekin batera egon behar dela. Orain proposamenak jasotzeko fasean egonik, uste dute 2020ko martxorako zerbitzu berria esleituta egongo dela; hala, pentsa daiteke lehenengo 4 hilabeteetan sartuko dela alderdi mekanikoa, eta 2020ko urrirako guztiz ezarrita egongo dela.

EH Bilduko ordezkariak galdetu du ea horrek esan nahi duen bizikleta elektrikoa hartuz gero geltoki elektriko batean utzi behar dela.

Zuzendariak esan du hori kontuan hartu dutela, eta sistemari konplexutasuna ematen dion elementua dela.
Arkitektoen Elkargoaren ordezkariak azaldu du geltoki intermodalak ezar daitezkeela.

Zuzendariak esan du geltoki elektrikoak gero eta garatuago daudela eta bizikleta mekanikoen geltokietan ez dela beharrezkoa hargunerik jartzea. Halaber, banaketak eta giza elementuak produktua garestitzen duela.

Presidenteak adierazi du arrazoizkoa iruditzen zaiola Dbus enpresak eramatea eta, beraz, zerbitzu publikoaren irizpidea kontuan hartuko dela. Osagarria izango da garraioaren ikuspegitik.

Tarifa sistemari buruz adierazi dute bizikleta elektrikoa garestiagoa izango dela ibilbide laburrak edo toki lauetakoak egiten badira, eta mekanikoa balitz bezala ordainduko dela maldako ibilbideak edo ibilbide luzeak eginez gero.

## 8. Galde Eskeak

Lantxabe elkarteko ordezkariak bizikleten aparkalekuko euskailuei eta txatarra eramateari buruz galdetu du.
Lehenengo gaiari buruz, erantzun diote ikerketa bat aurkez daitekeela, zeinen arabera ez den hain erraza eta agerikoa, eta kontseiluan denbora har daitekeela hori azaltzeko.

Eta txatarra eramateari buruz, erantzun diote gai

Se indica que a partir del 4º año hasta el 8º, se incorporarían 12 estaciones eléctricas y 2 mecánicas más.

Se señala que todo esto tiene que convivir con el actual sistema. Que ahora está en fase de recibir propuestas, creemos que para marzo de 2020 estará adjudicado el nuevo servicio y que los primeros 4 meses entrará la mecánica y luego se implantará en su totalidad en octubre de 2020.

El representante de EH Bildu pregunta si ello implicaría que si coges una eléctrica la tengas que dejar en un destino eléctrico.

La Directora dice que eso se ha tenido en cuenta, y que es un elemento que da complejidad al sistema.
La representante del Colegio de Arquitectos indica que pueden ponerse estaciones intermodales.

La directora indica que las estaciones eléctricas cada vez van evolucionando más y que en las estaciones para bici mecánica no haría falta acometida. También que la distribución y el elemento humano encarece el producto.

La Presidenta dice que, que lo lleve dbus parece lo razonable y por tanto, se va a contar con el criterio del servicio público. Va a ser complementario desde el punto de vista de transporte.

Sobre el sistema tarifario se indica que en bicicleta eléctrica se paga más si haces trayectos cortos o en llano y se paga como si fuera una mecánica si haces trayectos o en pendiente o largos.

## 8. Galde Eskeak.

El representante de Lantxabe pregunta sobre la sujeción de los aparcabicis y la retirada de la chatarra.
Sobre el primer tema se le indica que se les puede presentar un estudio hecho en el que se pone de manifiesto que no es tan fácil ni tan evidente y que puede dedicársele tiempo en el consejo para exponerlo.

konplexua dela eta txatarra eramateko dauden muga guztiak azal ditzaketela, prozeduren konplexutasuna uler dezan.

Lantxabeko ordezkariak galdetu du nola dagoen markesinak handitzeko edo berriak jartzeko kontua.

Dbus enpresako ordezkariak erantzun dio kontratuaren lehiaketa egin dela eta esleitu dela. Lehenengo markesina fabrikatu dutela eta baliozkotu behar dela.

Udalak Larramendiko geltokia aukeratu duela mugikortasun urria duten pertsonekin probak egiteko.

Oniritzia ematen zaionean egingo dela lehenengo eskaria. Eta, hortik aurrera, lehenengo 3-4 urteetan 110 markesina ordezkatuko direla, 1/3.

Geltokien abisuei buruz galdetu dute, eta Dbus enpresako ordezkariak erantzun du hasieran beti aktibatuta egotea pentsatu zela, baina jendea kexatu zenez, urrutiko aginte bidez soilik aktibatzen direla orain. Aipatu du urrutiko agintea ONCE erakundean edo SS Turismoko bulegoan eskuratu daitekeela.

Adierazi dute soinua modu desberdinean hautematen dela egoeraren arabera, eta kontrakoagatik ere kexak jaso dituztela, hots, ez zelako entzuten.

Bilkura 19:50ean amaitu da.

Y sobre la retirada de la chatarra se le indica que es un tema complicado y que también se pueden explicar todas las limitaciones que tenemos a la hora de retirar para entender la complejidad de los procedimientos.

El representante de Lantxabe pregunta cómo está, la ampliación o las nuevas marquesinas.

El representante de dbus le contesta que el contrato se ha licitado y que está adjudicado. Que ya han fabricado la primera marquesina, y que hay que validarla.

Que el Ayuntamiento ha elegido la parada de Larramendi para testearla con personas de movilidad reducida.

Que en cuanto se le dé el visto bueno se hará el primer pedido. Que a partir de ahí, los primeros 3-4 años se sustituiránn hasta 110 marquesinas, 1/3.

Se pregunta por las locuciones de parada y desde Dbus se contesta que inicialmente iban a estar siempre activadas, pero hubo quejas y ahora solo se activa mediante mando que puede adquirirse a través de la ONCE ó en SS Turismo.

Se señala que el sonido se percibe diferente en función de cómo esté y que también se han recibido quejas por todo lo contrario, por no oirse.

A las 19:50 termina la sesión.